

ANIMALIEN MASAJEA

1.- Deskribapena

Hurrek elkarri masajeak ematen dizkiote animaliak direla imajinatuz.

2.- Helburuak

- Ukitze fisikoa eta hitzik gabeko komunikazioa bultzatzea.
- Irudimena lantzea.

3.- Partaideak

4 urtetik aurrera.

4.- Materiala

“Oihaneko animaliak” ipuina eta hondo-musika lasaigarria.

5.- Garapena

Binaka jarritz, jokalariek gorputza erlaxatuko dute eta bikotekideetako bat “Oihaneko animaliak” ipuina kontatzen hasiko da. Ipuina kontatzen duen bitartean, bikotekideari bizkarrean masaje bat emango dio, eskuak istorioan azaltzen doazen animaliak izango balira bezala mugituz. Bi pertsona baino gehiago baldin badaude, zirkulu bat osatuko dute eta elkarri masajeak emango dizkiote, denek gozatu ahal izateko.

6.- Ebaluazioa

Jolasa gustatu al zaizue? Nola sentitu zarete masajea ematerakoan? Eta masajea jasotzerakoan? Ongi pasatu al duzue? Nolako sentsazioak izan dituzue?

7.- Iturria

Bakeola. Bitartekaritza eta Gatazken Konponbiderako Zerbitzua. EDE Fundazioa. Bilbo 2004.

“OIHANEKO ANIMALIAK”

Oihan batean hainbat animalia bizi ziren. Egun batean, tximuak, denen artean aukeratutako ordezkariak, bilera bat deitu zuen zerbaiten berri emateko:

- Denok dakigunez, lehoia da animalia guztien erregea, baina zoritxarrez, zahartu egin da eta atsedean hartu nahi du. Beraz, gure hurrengo erregea zein izango den erabaki beharra dugu. - Nori obeditu beharko diogu hemendik aurrera? - Zein izango da gure Erregea?

- Animaliak oso arduratuta daude, eta horretarako arrazoirik badute. Oihan bat ezin da egon erregerik gabe.

- Ez dugu nahi elkarrekin borroka egiterik, lagun minak garelako...

- Erregea nor izango den erabaki behar dugu, baina nola egin aukeraketa?

Animaliek beste bilera bat egin zuten, eta eztabaida askoren ondoren, erabaki bat hartu zuten.

- Arazoa konpontzeko modu erraz bat aurkitu dugu: interesatu guztiak Mendi Zailera igoko dira, eta tontorrera iristen den lehena gure Erregea izango da.

Mendi Zaila oihan osoko mendirik garaiena zen. Animaliek erronka onartu zuten, eta denak mendira igotzeko elkartu ziren.

Mendira igotzen hasi zen lehena inurria izan zen. Poliki-poliki zihoan gorantz, pazientzia handiz.

Hurrengoak armiarmak izan ziren, zuhaitzetara igotzen eta gero jaisten...

Ondoren igelak abiatu ziren mendirantz, saltoka. Beren kantuekin igoera girotzen zuten. Zein alaiak diren!

Orduan elefante talde bat azaldu zen; oihaneko azken albisteak entzun berri zituzten eta mendirantz ibiltzen hasi ziren, beren zango indartsu eta geldoekin dena astinduz.

Gepardo talde bat ere mendirantz korrika bizian joan zen, zein azkarrak diren!

Haien atzetik liztorrak zihoazen. Kontuz ibili, eztenkatu egingo zaituzte eta!- Ai ai ai ai!

Oihaneko suge ederrenek ere tontorrera iristeko ahalegina egitea erabaki zuten. Lurrean zehar emeki arrastatuz abiatu ziren, udazkeneko orbelen artean.

Begira nor datorren hortik! Tximeleta talde bat da; zein ederrak eta hauskorak diren!

Mendirantz abiatu ziren azkeneko animaliak kaiok izan ziren; beren hego handiekin zuhaitzen gainak ferekatzen zituzten.

Baina inor ez zen tontorreraino iristeko gai izan, eta denak lur-jota jaitsi ziren. Animaliak oso kezkatuta zeuden; denek kale egin bazuten, nola aukeratuko zuten, ba, erregea?

Orduan, arrano handi eta jakintsu batek hitza eskatu zuen: - Nik badakit nor izango den erregea!

- Nola? Galdetu zioten denek.

- Bada, oso erraza da... erantzun zuen arranoak. - Ni animalietatik gertu hegan ibili naiz, eta Mendi Zailetik lur jota jaisten zentozela, bakoitzak Mendiari esaten ziona entzun dut.

Lehenengo taldeak zera esan du: - Mendia, garaitu egin nauzu!

Bigarren taldeak zera esan du: - Mendia, garaitu egin nauzu!

Denek esan dute gauza bera, inurriak izan ezik, hark hauxe esan baitu:

- Mendia, garaitu egin nauzu, baina oraingoz bakarrik! Zu iritsi zara zure tamainarik handienera, eta ni oraindik hazten nago.

Inurriak, erantsi zuen arranoak, nahiz eta porrot egin, irabazlearen jarrera izan du, besteek ez bezala. Ez du amore eman, eta norbaitek horrela pentsatzen duenean, bere burua arazoa baino handiagoa bilakatzen da: bera da bere buruaren jabe, eta besteen erregea izateko prest dago.

Inurriak txalo zaparrada bat jaso zuen, eta animalia guztien Erregina bihurtu zen.